

HAURTZARO ARLORAKO MATERIALA

“ERDU - TE INVITO”

1. Sarrera (oinarriak)

Caritas Bizkaiaren kanpaina boluntariotzaren gaien zentratu da. Zaintzaren eta komunitate abegitsuaren bidez sortzen diren loturen ildotik jarraitzen dugu.

Boluntarioen konpromisoa harremanak zaintzeko tresna sendoa da, gizarteratze-lanerako funtsezkoa baita. Boluntarioek gizartea eraldatzeko motibazioa dute, eta laguntzeko prest daude. Gertutasun horren bidez, harreman sendoak sortzen dira, eta horiek lagungarriak dira gizarteratze-prozesuan aurrera egiteko.

Hurrekin emozioak partekatzearen garrantzia landuko dugu, senidetasun eta adiskidetasun harremanei balioa emanez, horiek laguntza, konfiantza eta zoriona ematen baitigute.

2. Dinamika

Dinamika. Adiskidetasunaren dadoa

Taldeak egin eta parte-hartzaile bakoitzari dadoa marraztua duen orri bat emango diogu (eranskina). Dadoa moztu eta aurpegi bakoitzean 1etik 6rako zenbakiak jarriko ditugu. Etxean ditugun dadoak ere eraman daitezke saiora.

Dadoaren alde bakoitzari funtzio bat emango diogu. Funtzioak:

- 1- ... jolasa gustatzen zait.
- 2- ...-rekin egotea gustatzen zait.
- 3- ...-ri laguntzea gustatzen zait.
- 4- Momentu hauetan triste jartzen naiz: ...
- 5- Momentu hauetan zorionsu naiz: ...
- 6- ...-rekin hitz egitea gustatzen zait.

Talde bakoitzeko pertsona guztiak bota dutenean, talde berriak egingo dira, beste pertsona batzuek ere jolasteko.

Behin amaituta, galdera hauek egingo zaizkie:

- Nola sentitu zarete? (lotsatuta, ondo, ez nekien zer esan, dibertigarria izan da...)

- Zuen kideei buruz ezagutzen ez zenuten zerbaít deskubritu al duzue? Esaterako: ...

- Zein pertsona irten dira jokoan? (harekin hitz egitea gustatzen zaizuen, laguntzea gustatzen zaizuen...)

Zer gehiago partekatzen duzue pertsona horiekin? Uste duzu hobeto egoten, zoriontsuago izaten laguntzen dizula pertsona horrekin/horiekin partekatzen duzunak?

-Uste duzu badaudela hori ez daukaten pertsonak, hau da, norekin partekatu ez daukatenak? Adibidez:

3. Otoitza

Dinamikan partekatu duguna gogoan hartu, eta otoitzera eramango dugu.

Jesusek banatzera eta geure burua besteí, batez be txarto pasatzen dabeneí, triste eta bakarrik dagozaneí, emotera deitzen gaitu. Irakurri daigun ondorengo otoitza:

Jauna, beharbada ez dot gauza asko emoteko,
baina doe ugari jaso dot
besteakaz banatzeko.
Erakutsi eidazu
egoista ez izaten,
lehenengo besteengan pentsatzen
eta poztasunez banatzen.
Erakutsi eidazu nazan
eta daukadan guztia erdibanatzen.
Jesus, aldatu nire bihotza
eta daukadana banatu daidala
emonez jasoten da-eta
eta erdibanatuz antzematen
zure presentzia gure bihotzean.

Marcelo A. Murúa



